

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa aurrera eramán ahal izateko, baliabide egokiak eduki behar dira. Honengatik, Secureband S.L. enpresako funtsezko baliabideak zehaztea erabaki dugu arrakasta izateko.

Aurreko faseak aurrera eramateko baliabideak erabili behar dira, esaterako, gure balio-proposamenaren eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko (Bezeroekiko harremanak eta Kanalak) eta diru-sarrerak sortzeko.

Hiru ataletan bana ditzakegu baliabideak:

- **Baliabide fisikoak:** Baliabide fisikoen artean baliabide materialak aurki ditzakegu. Gure enpresaren lokala multzo honetan sailkatzen dugu, beharrezkoa baita lan egiteko toki bat izatea. Informatika tresnak eta altzariak honetan kokatzen ditugu ere, lanean jarduteko ezinbestekoak baitira. Azkenik, garrantzitsuenak, eskumuturrak egiteko materialak. Hauek izango ez bagenu ezin izango genuke proiektua aurrera eramán.



- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** Gure produktua aurrera eramateko guk egin behar dugun lana funtsezkoa da. Alde batetik, gure eskumuturreko diseinua perfektionatu dugu. Hori lortzeko, gure taldeko batek marrazteko duen gaitasuna erabiliko dugu. Elektrizitate eta informatikan ditugun ezagutzei esker ere eskumuturrak gure kabuz ekoizteko ahalmena izango dugu. Gainera, gure negozioan bezeroekiko harremana hain garrantzitsua denez taldeko norbait bezeroekiko arretan espezializatu eta gure bezeroen nahiak betetzen arituko da.



- **Finantza-baliabideak:** Beste baliabide motak lortzeko

beharrezkoak diren baliabideak dira, hau da , behar den kapitala bai negozioa martxan ipintzeko inbertsioen bitartez, bai ordainketak hornitzaile eta beste hartzekodunei egiteko. .

Diru horren zati bat bazkideak ipinitakoa da, kide bakoitzak hasieran egindako ekarpenari esker. Bestalde, dirua lortzeko,

crowdfunding aplikazio batean emango

dugu izena, non bertan pertsona anonimoek dirua eman ahal digute gure proiektua aurrera eramateko.



<p>BARNE-FAKTOREAK</p>	<p>INDARRAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Punta puntako teknologia da ● Adin askotako jendea lagundu dezakegu. 	<p>AHULEZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Finantza baliabideak urriak dira, enpresa hasten ari delako ● Esperientzia falta dugu enpresa munduan
	<p>KANPO-FAKTOREAK</p>	<p>AUKERAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Beste herrialdeetan honelako gailuak ez egotea. Ustiatu gabeko merkatuak izatea ● Merkatu hau garatze bidean dagoenez, bereganatu ahal dugu